

Oroimena

*Espazioen memorian zehar
murgittzeko bidaia*

OROIMENA. INSPIRAZIO-ITURRIA.

ESPAZIOEN ERALDAKETAZ,
GIZAKION ANTZALDATZEAZ,
SOINUEN TRANSFORMATZEAZ,
ETA HIRIEN GARAPENAZ... ari gara.

OROIMENA, espazioen memorian zehar murgiltzeko eta nork bere azalean bizitzeko bidaia.
Geure iragana berreskuratzeko ikus-entzunezko ibilbidea.

OROIMENA, gizakion erresilientzia-ahalmenaren eta bizi garen espazioen inguruko metafora.
Norbanakoa, gizartearen eraldaketaren islada gisa.

OROIMENAk bizi garen espazioak hausnartuz eta jostatuz, bertako kondaira eta bizipenak
berreskuratzen ditu.

OROIMENAk jendea du ardatz eta haien, gu guztion kontakizunak azaleratzen ditu.

OROIMENA. MAMIA.

OROIMENA, pieza bera eskenaratuko den espaziorako bidaia intimoa da. Sentimenduak sakon-sakonetik azaleratuaraziko dituen ibilbidea, paisai onirikoak jantzia eta espazio horretako pasadizo eta bizipenen bitartez kontatua.

Proposamenaren izenburua lana garatuko den espazioaren arabera osatuko da. Hain zuzen, bertan eskenaratutako ekintzek, espazioak berak eta espazio horrekin erlazionatutako pertsonak, lekuko iraganak eta bertako industriak jantziko dute izenburuaren abizena.

Lan hau gai unibertsalez jardungo da; hala nola, denboraren igarotzeaz, izatearen edo bizitzaren pisutasunaz, natura beraren sarkasmoaz edo eta norbanakoaren eta gizataldearen kezka edo arduren arteko amildegia murriztearen etengabeko saiakeraz. Alde batetik, espazio konkretu bateko memoria bilduko dugu. Hain zuzen, agiritegietatik jasotako material honek esanahi sinboliko boteretsua gordeko du bere baitan eta ikuskizuna garatuko den espaziora estu-estuki erlazionaturik egongo da. Bestetik, eskenaratze-uneke in situ eta zuzenean jasotako irudiak ere agertuko dira. Guzti honetaz gain, eta ironia kutsua dela medio, OROIMENAK gizabanakoak haren ingurunearekiko sortu duen loturaz hitz egingo du; betiere errealitate edo amets litekeen horretan, denbora eta espazioaz jardungo gara irudi-jokoen bitartez.

OROIMENA, espazioen memorian zehar bidaiatzeko aukera paregabea da; batetik, iraganean espazio bera bizi izan dutenen oroitzapenak berpizteko eta, bestetik, egun bizi garenon jakin-mina areagotzeko. Argia, soinua eta sentrazioak ardatz dituen performance artistikoa.



OROIMENA. EGITURAKETA.

Proposamen honetan erabiltzen den eszenografia oso moldaerraza eta higikorra da; antzerki-kutsu haundiko egitura honek altuera ezberdinekin jokutzen du eta, ondorioz, antzerkilarien lana zeharo indartu eta erakargarri bilakatzen du, bai estetikoki eta bai bisualki ere.

Eszenografia 4 egitura mugikorrez osaturik dago. Hauetariko batek ikuskizunaren euskarri tekniko eta artistikoa darama soinean eta autonomia osoz higiarazi daiteke. Beste hirurak gurpildunak diren heinean eskuz mugitzen dira; eta, irudi-emanaldietarako euskarri gisa erabiltzeaz gain, antzezlariek altueran garatu beharreko ekintzetarako podium bilakatzen dira.

Egituraketa honek proposamenaren mamia aberastea du helburu. Espazio konkretu bat ardatz harturik, bertako irudiak eta pasadizoak eskenaratuko dituen pieza originala da. Horretarako, euskarri tekniko hornituriko egiturak eraiki ditugu; era honetan, unean-uneko ikuslegoaren irudiak bildu eta prozesatu ditzazkete. Ekintza honek, ikuskizunari dinamismoa eta bizitasuna eskaintzen dio. Ondorioz, espazio ezberdinetako memoria aldian-aldiko irudi eta ekintza errealez jantziko dugu, euskarri nagusitik beste hiru euskarrietara haririk gabeko sistema bitartez bidalitako irudien laguntzarekin.

OROIMENA. EMAITZA.

Proiektu honen helburu nagusia tokian tokiko pieza biziduna eta berdingabea sortzea da. Hain zuzen, espazio bakoitzeko testuingurua eta beharrizan bereziak performance honen abiapuntu izango dira. Helburu hau lortzeko, eszenografia berezia eraiki dugu, paisai eta espazio ezberdinetara egokituko dena eta bertako memorian zehar bidaiaraziko digun egitura alegia.

OROIMENA ohiko dramaturgia baino harago doan proposamena da. Sormen-lan honen helburua zera da nork bere bizipenak senti ditzan, betiere antzerkia eta originaltasuna direla medio.

Proposamen honekin ate berriak ireki ditugu, bide berriak hausnartu; dramagintzaren aukera ezberdinak plazaratu eta hiri edo espazio ezberdinekiko sortzen diren harremanak eskenaratzeko aukera paregabea da. Izan ere, lan artistiko bat in situ sortu eta garatzeak zera baitakar, hiriak eta hiritarrek espazio horrekin duten loturan murgiltzea, memorian bidaiatzea eta gizartearen pasadizoak gogora ekartzea. Eta ez hori bakarrik, lan honekin harago joan nahi dugu, izan ere, lan artistikoa sortu eta aurkezteaz gain, norbanakoaren sentimenduak astindu daitezen eta espazio bakoitzaren usaina, memoria ahaztezin bilakatu dadin nahi dugu.



OROIMENA. SORKUNTZAREN ARRAKASTA.

Sortzailerik gabe, arterik ez. Arriskurik gabe, sormenik ez.

Unean uneko moda eta joeretatik at doan proposamena dugu. Lan honetarako, espazio ezberdinetara egokitzen den GAILU originala eraiki dugu, uneoro aldatzeko ahalmena duena. Honela, bizipen oro ezberdina izango da; hau da, performance parte-hartzailea errepikatu arren, bai ikuslegoak eta bai antzezlariek ezberdin jokatu eta jasoko dutena alegia.

Sortzea zera baita, libre izatea... eta sortze-lanak, askatasunak bezala, ez baitu mugarik.

OROIMENA. LEHEN BIDAIA.

OROIMENA lanaren lehen bidaia 2017ko ekainaren 17an egin genuen, OROIMENA EUSKALDUNA izenburupean.

Euskalduna, iraganean punta-puntako ontziola eta Bilboko industriaren ardatz nagusi izandakoa eta, egun, Bilboko joera berri baten ardatz, turismoarena, alegia.

Euskalduna, Bilboko eta inguruko gizartearen antzaldatzeari buruzko metafora gisa, bertako gertakariei men eginez. Espazioen galerak edo eraldatze horrek gizakion eta espazio horiek bizi izan dituztenen memorian duen eraginaz aritu ginen. Ez onerako, ez txarrerako... aldaketa soilaz baizik.

Lehen esperientzia arrakastatsua atzean utzita, prest dugu OROIMENA bidai berri bati ekiteko.

OROIMENA da antzerki-abentura berri honen izena, geure iragana berreskuratzeko ikus-entzunezko bidaia.



TEASER OROIMENA EUSKALDUNA

Lehen bidai honen lan-taldea honako hau izan da:

Antzezleak: Juanjo Otero (antzerkilaria), Natxo Montero eta Pilar Andrés (dantzariak).

Soinu teknikaria eta soinua: Ibon Aguirre.

Zuzeneko musika: Aitor Aguiriano.

Bideo-sorkuntza: Óscar de Paz.

Argiztapena: Javier García.

Egitura nagusiaren gidaria: Iñaki Aginaga.

Eszenografiaren diseinua eta eraikuntza: Gerard Tubau, Óscar de Paz.

Jantziak: Iban López.

Ekoizpena: Nagore Navarro.

Dramagintza: Javier Liñera, Raúl Cancelo.

Zuzendaritza artistikoa: Raúl Cancelo.

OROIMENA. HORTZMUGA TEATROAREN SORKUNTZA ARTISTIKOA.

Formatua: kaleko ikuskizuna.

Ikuslegoa: publiko orokorra.

Iraupena: 35 minutu inguru emanaldi bakoitza (emanaldi kopurua eta egunak programatzailarekin zehazteko).

Oroimena

*Espazioen memorian zehar
murgittzeko bidaia*